



Aspanif Elkartearen: Euren umeak erbi ezpandin edo ahasabai hautsiekin jaioak dituzten haurren familien elkartearen, jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa duena.

13 ASPANIF Elkartearekin solasean

- Aspanif erbi ezpandin edo ahasabai hautsia duten haurren familien elkartearen da, batik batik, Euskal Herrian jarduten duena. Elkartearen helburua nagusia familiei informazioa eta laguntza eskaintzea da.
- Aspanif nire elkartearen da. Beno, gure elkartearen ze, urtean behin familia guztiak elkartzen gara eta asteburu bikaina pasatzen dugu elkarrekin!
- Eta seguru, itzel pasatzeaz gainera, hainbat gauza ikasten dituzuela elkarrekin.
- Ba, bai. Baina neure kontura ere hainbat gauza egiten ikasi dut.
- Adibidez?
- Haizearekin jolasten.
- Zertan?
- Zuk ere, "buru ederra baina barruan haizea", e? ... Txistua jotzen ikasi dudala!



14 HAIZEAREKIN JOLASEAN

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Unai Iturriaga Zugaza-Artaza

Ahotsak: Gari eta Josu Zabala

Nik badut nire gorputza ta nire bihotza
ni hezurra naiz, haizea naiz, naiz ahotsa
zer, ahalegina, ezkutuan, nota bakoitza!
Gaur estrainekoz atera dut txistu hotsa.

Berezia izan omen nintzen/ ni jaiο nintzen garaian
irribarre bikoiztua neukan/ zabal-zabala bisaian
hura desagertu zen baina dut/ zulo bat ahosabaian
haizea joan-etorrian dabil/ nirekin jolastu nahian
soinu jaiian!

Nik badut nire gorputza ta nire bihotza
ni hezurra naiz, haizea naiz, naiz ahotsa
zer, ahalegina, ezkutuan, nota bakoitza!
Gaur estrainekoz atera dut txistu hotsa.

Medikutara eginak ditut/ hamaika mila bisita
ez naizela izutzen martzianoz/ mozorrotuta ikusita
orain bihotza dut bularretik/ irten beharrez jauzika
haizea neure alde jarri dut/ badaukat neure musika!
Zer polita!

Nik badut nire gorputza ta nire bihotza
ni hezurra naiz, haizea naiz, naiz ahotsa
zer, ahalegina, ezkutuan, nota bakoitza!
Gaur estrainekoz atera dut txistu hotsa.